

Txillardegia

Idazlea

# Isilkeriak

■ Bi hilabete joan dira jadanik, bai. Are gehiago ere: Adolfo Araiz eta Floren Aoi, ilara hitzok bi lehenengoak, preso altxa zituztenez geroztik. Baina: *ixol!*...

Eujenio Ibarzabal Jaurilaritzaren bozeramale-ohiak, gutaz mintzo zelarik zorna zeriolarik, hau esan zuen gutxi gora-behera orain dela gutxi: «gartzelaketa hori, nori axola zaio? HBtik kanpora, inori ere ez!»... Berritoki ere paktukide usteldu guztien bozeramale pozintsu bihurturik, bere burua eta bere laguntxoak salatu zituen funtsean.

Egia baita Ajuria-Eneko edabazek elikatzen direnei, bost axola zaizkiela HBkideei gerta dakizkiekeen zoritxar guztiak. Hori bakarrik ez: paktuki-deak oso pozik daude gaur HBko zuzendaritza gartzelan ikusita; eta hemendik egun batzuetara kalean dauden azkeneko lau mahaikideak barrura sartzean, are pozago. Noski!

Paktukideen etsaiak ez baitira espainolistak, bertako salduak, eta katu epelak; gu geu, etsitzen ez dugun abertzaleok baizik.

Eta beren arbuioan, eta esan ohi denaren kontra, borroka-moldeak ez du deusik ere ikustekorik. Hor daude, aspaldisko honetan, Donostiako katedraleko gose-grebariok, iur gorrian etzanda. Bortxarrik gabeko bide hori hautatu dutela-ta, itxura denez, txalo jo beharko bide liekete *pacifistek*. Baina berorik ez dira inoiz bertaraten. Aitzitik: ustel bitez!

Berauek ez omen dute Donostiako Katedralekoekin eta Iruñeko Seminariokoekin bat egin agertu nahi. Lotsagarri gertatzen bide zaie gu bezalako jendilaje BORTXAZALEEKIN agertzea. Bego.

Baina zergatik ez, horretara, berek, beren aldetik, inolako kutsadurarik gabe? Zeren zai daude bakezale porrokatu horiek *beren aldetik* beren lehendabiziko gose-greba egiteko? Zeren zai daude?

Zeren eta, gaur arte bederen, eta salbuespenak salbuespen, ETAko militanteek eta Ezker Abertzaleko *violentoek* ez bestek egin baitute gose-grebarik Euskal Herrian: behin eta berriz, gartzela barruan eta gartzelatik at, Euskal Herrian eta erdal herrietan.

Geure gudarien ekintzak gaitzesten ez ditugulako paratzen omen dira gure kontra. Norik sinestiko du hori, ordea? Jaurilaritzako Lehendakari-ordezko GALEtik urrun ibili ez den pertsona baten eskuetan jartzea bedeinakatu zuten horietek, nondik nora irentsaraziko guri HBrekiko urrunketa eta madarikazio etengabeak, ETArekiko jarreran dautzanik?

Gakoa besterik da. Paktukideek gauza bat defenditzen dute edozeren gainetik: *espainiar legeria*. «Hautu bakarra —zioen Mahatma Gandhik— koldarkeriaren eta bortxaren artean gertatzen denean, bortxazko soluzioa behar da aukeratu».

Baina herri xumeagandik hurrupatutako soldata gaitzak inolaz ere arriskatzeko prest ez dauden fraile-ohi, jurista, idazle eta beste, lasai asko trufatzen dira gose-greba bidezko *auto-propaganda montatzen* duten euskaldunak.

«La réconciliation n'est possible —idatzit du frantsesez gandhizale ezagun batek— *que dans la justice, et la justice n'est possible que par la lutte*». Hitz argitsu horiek euskarara itzuli beharrik ez dago, nik uste.

Legeriak onartu ez dituen, baina Euskal Herriari dagozkion eskubideak lortzeko, beraz, *borroka* egin behar dela. Bortxa erabiliz, ala bortxa erabili gabe. Baina borrokaz.

Gandhik berak ere *satyagraha* izeneko borrokabideaz lortu zuen Indiaren Independentzia. Gandhik ez zuen Britainiar Inperioko legeriaren errespetu jokatu; eta Mahatmaren borrokak eta *pacifista* delakoan erretolika ez dute inolako loturarik.

Gandhik *borroka* egin zuen bere biziera guztian barrena. Paktukideek sekula ez.

Barka! Egiten dute, bai, borroka; are zikina ere. Bai. Baina... abertzaleon kontra bakarrik!

Izenak emango nituzke pozik. Baina ez dut egin-go.

Noiz proposatuko ote dute gandhiar *hartal* bat, Euskal Herriari dagozkion nazio-eskubideen alde? Noiz antolatuko *sit-in* ausart bat Gobernu Zibilaren aurrean presoen askatasuna eskatzeko? Noiz gose-greba bat onetsiko eta bultzatuko? Noiz langile-greba arrunt bat txalotuko? Noiz egun pare bat bederen barau eginez, beren gibusorrak pittin bat arinduko?

Zai gaude. Eta zai egon luze horretan, egia esan, aseak gaituzue aspaldidanik. Zuen fartsa lotsa-galduak leporaino gauzka.

Sistema politiko baten barruan jokatzek, zilegiztatu egiten du sistema. Sekula ez ahulitzen. Are gutxiago uzkaillzen.

Zuen sasi-bakezalekeriek, zeuen poltsikueta erortzen dira *konddar* batzuen truke, gotortu egiten dute Euskal Herriaren kontrako zapalketa.

Inperioaren morroin leialak besterik ez zaretela erakusteko, egizue zenbait, otoi, sistematik at.

Gose-grebatxoren bat, adibidez. Noiz? Non? ■

L A P h I T Z A



Joxe Mari Ostolaza



Zubi

Hilario Zubizarreta, —zein bitxia egiten zaidan, Xubi bere detura ofizialak izendatzea— Zumaian sortua. Bertan hazia. Berak bere buruari esaten zion legez, Arben semea. Kantari ona, haurtzaroan herriko parrokiako tiplea. Izakera azkarrekoa, azkenerako gure herriko egoera aipatze hutsak, purrustaka jartzen zuen gizona. Erretxina. Arrazoin osoz. Zeren bi gerratan aurre samar ibiltzek ematen baitzion guk nekez lortu genezakeen jakituria eta sendotasuna. Horregatik bere iritziak —interes pertsonaletik urrun— pisu handia zuen nigan. Bi gerra horietarik —ofizialak biak— berea gal eta garaiko kenkak beharturik bereganatu zuena, irabazi bizi guzirako arrastoak. Eta bere aldeko elizkizuntan —Xubi ez zen eliztako teliatuek aspian harapatuko zuten horietakoa— hori nabarmen ikusi genuen. Frantziako lau erresistente ohik zeramatzaten garaipen banderak, ikurrin bakar batek jan zituen, honek baitzeukan han protagonismo osoa. Eta hainbeste esateko zeukan Xubi, berak nahi bezala joan zaigu. Isilik. Espanturik gabe. Hutsunea. Joan den hogeita bost urtetan, igandero Donibane-Lohizuneko Xabin Etxean egunkariak elkarri trukatu zuten kafea hartzen genuenak, bera ezik, bildu ginen joan igandean ere, berak ekartzen zuen *Deia* mahain gainean zegoelarik. Baina egunkarietako irakurketa gatz gabea suertatu zitzaigun. Ezbaidarrik ez. Xubi ez baita ordezkarratza. Ez lehen, ez orain. Jeltzalea hezurretaraino, ororen gainetik abertzale militantea, katuxukaldekieretan denborarik gaitzen ez zuena! Hutsunea. Eta Xabin Etxetik ETBri txartel gorria.

Jose Luis Lizundia



Tolosar errepublikanoa

Etzidam da II. Errepublikaren Eguna. Francoren buruzagitzapean, demokrazia konstituzional baten kontra, armaz eta terrorez sublebatu ziren militar, karlista eta gainontzeko eskuindarrek hondatu zuten erregimena. Data honen bezperetan, pasa den otsailaren 20an, Probintziaren hiriburua ohian, duela ehun urte jaio zen seme argi bat oroi eta omen du nahi nuke, *Ramon Maria Aldasoro Galarza*. Pare bat artikulu irakurri ditut orain su mendeurren horren karietarat; bata, G. Iñurrateguarena, orimen pertsonalez hunkitua, eta, bestea, Lorenzo Sebastian historiagilearena. Azken honek, Aldasororen bizitza hiru konstantetan oinarritzen du: ideologikoki, *liberala*; Estatuaren erregimenarekiko, *errepublikanoa*; Euskal Herriarekiko, *estatutista*. Gaurko euskaldunok, hirutasun hori eta bere bizitza politikoko beste zertzelada interesgarri ahaztu gabe, jakin beharko genuke bera izan zela lehen Jaurilaritzako, alegia, *Jose Antonio Aguireren Lehendakari-zapeko kontseilarietarikoa* bai. Salerosketa eta Orniketa Zaingoko Burukidea, orduko terminologian. Gerra galduta, beste milakak bezala, erbesteratze latza ezagutu zuen, atzerrian. Habanan hil zelarik, 1952an. Uste dut, *gaurko Jaurilaritzak*, omenaldi bat zor diola, eta, *bere jaioterriko Udalak*, Tolosan bertan, kale-izen, oroitari edota beste gomutagarri iraukeren bat, 100. urteurrena alperrik pasako ote?